

## 49. PUNTA BEGOÑA proiektua

<b>Proiektuaren izena</b>	Begoña lurmuturreko galeriak izeneko higiezin historiko-kulturalaren balioa nabarmentzea			
<b>Proiektuaren laburpena (esaldi 1)</b>	<p>Proiektua diseinatu eta Getxoko Udalari aurkeztu zioten Udalaren jabetzako higiezin horren balioa nabarmentzeko nahiari erantzuteko, ondare-izendapena baitu. Proiektuan EHUko 50 ikertzailek baino gehiagok parte hartzen dute. Gehienak Global Change and Heritage Prestakuntza eta Ikerketa Unitateko kideak dira. Unitate hori Bikaintasuna Ikertzeko hiru taldek osatuta dago: IBeA (Ikerketa eta Berrikuntza Analitikoa), OEIT (Ondare Eraikiaren Ikerketa Taldea) eta HGI (Hidrogeologia, Geodinamika eta Ingurumena). Horrez gain Kultura Paisaien eta Ondarearen UNESCO Katedrak ere hartzen du parte, baita zaharberritzeko talde batek ere (Arte Ederrak). Proiektua zaharberritzeko obra bat baino askoz gehiago da. Balioa nabarmentzearen kontzeptu horrek higiezina eta hainbat ekimen hartzen ditu barnean; horien bitartez jabetza-sentimendua finkatu nahi dute Getxoko herritarrengan, eta jarduera iraunkor batzuk zein proiektu berritzaileak bultzatu nahi dituzte udalerriko, Bizkaiko eta Euskadiko alderdi sozioekonomikoetan eragiteko.</p>			
<b>Proiektuaren hasiera-data</b>	2014ko urtarrila	<b>Proiektuaren amaiera-data</b>	2018ko abendua	
<b>Erakunde nagusia edo koordinatzailea</b>	EHU			
<b>Parte hartzen duten beste erakunde batzuk</b>	<b>Erakundea</b>	<b>Proiektuari egindako ekarpen nagusia</b>		
		Ez dago bestelako erakundeen partaidetzarik, baina Getxoko Udalak udal-espezializazioko hainbat arlotako goimailako teknikariak jarri ditu proiektuaren esanetara		
<b>Proiektuaren aurrekontua (milaka euro)</b>	<b>Urtea</b>	<b>Aurrekontua guztira</b>	<b>EAEn parte-hartzea</b>	
	2014/15	1.043.270,36 €		
	2016	679.912,00 €		
	2017	701.771,96 €		
	2018	657.242,84 €		
<b>EAEn parte-hartzearen finantzaketa-iturriak (milaka euro)</b>	<b>Urtea</b>	<b>1. finantzaketa: Horizonte 2020</b>	<b>2. finantzaketa: Proiektuaren bazkideak</b>	<b>Bestelako laguntza publikoak</b>
<b>Jardun-eremua</b>	<b>Lehetasunezko arlo estrategikoak</b> <small>Markatu X batekin</small>			

	Fabrikazio aurreratua	Energia	Biosanitarioa
	<b>Aukera-esparruak</b> <small>Markatu X batekin</small>		
	Elikadura	Hiri-habitata	Ekosistemak
			X
<b>Proiektuaren deskribapen laburtua: helburu nagusiak eta garatu beharreko emaitzak, zer eronkari erantzuten dion, ekonomian eta gizartean izan dezakeen inpaktua, eta abar.</b>			
<p>Higiezinaren balioa nabarmentzeko ildo orokorrak ezartzea da proiektuaren helburua; hauek dira, besteak beste: higiezinaren analisia eta diagnostikoa; dokumentazio geometrikoa eta informazio-sistemak egitea; historiako, gizarteko, arkitekturako, kimikako eta hidrogeologiako zein bestelako ikerketak; sendotze/eraberritzeko esku-hartzea; jarduketaren inpaktu sozioekonomikoa eta estrategikoa; haren hedapen eta transmisioa, bai eta herritarren parte-hartzea ere.</p> <p>2014-2015 aldian hainbat ikerketa-ekintza garatu dituzte, eta higiezinaren egoeraren gaineko diagnostikoa ekarri dute horiek. Higiezinaren balioa nabarmentzeko jarduerak 2016-2018 aldian hasi dira; horrela bada, haren zati batzuk zaharberritu dituzte, eta herritarren parte-hartzerako jarduera batzuetan erabili dituzte.</p> <p>Maila zientifiko-teknologikoari dagokionez, lanek XX. mendearen hasierako bi hamarkadetan erabili zituzten eraikuntza-materialen gaineko ezagutzan sakondu nahi da lanen bitartez. Europako hiri gehienetako zabalguneeetan erabilitakoen antzekoak dira material horiek, hormigoi armatuaren lehen belaunaldiak hasi baitzituzten lanak horietan guztietan. Irakaskuntza-mailan, Paisaiaren Kudeaketa: Ondarea, Lurraldea eta Hiria Unibertsitate Masterraren ikasgaietan jasota daude lanak/aurrerapenak/garapenak, bai eta Master Amaierako Lanetan ere; horietako 4 garatuta daude jada. Ikerketa eta berrikuntzarekin lotura handiagoa duten atalak, berriz, doktorego-tesiko 3 proiektutan daude; Ondare eta Paisaiako Diziplinarteko Zientzia Estrategietako Doktoregoaren programaren arabera garatzen ari dira proiektu horiek. Proiektua garatzen duten ikerketa-taldeetako kideek zuzentzen dituzte graduatu ondoko ikasketa horiek.</p>			